

ARAZI

Aditz hau gehienetan ez doa bakarrik beste aditz batzuei lotzen zaie. Beste aditzen esanahia apur bat aldatzen du (gaztelaniaz *hacer, realizar algo, obligar a...*).

Adibidez:

Sartu > Sarrarazi: Nik txakurra etxera sarrarazi dut

Jakin > jakinarazi (*hacer saber*): Hark niri berria jakinarazi dit .

Aditz laguntzailea

1.- Eransten diogun aditza NOR sistemakoa bada, NOR-NORK sistema hartzen du.

Adibidez:

Atean gelditu **naiz** > Atezainak atean geldiarazi **nau**

Gu barrura sartu **ginen** >> Hark gu barrura sarrarazi **gintuen**

2.-Aurrean doan aditza NOR-NORK sistemakoa bada, "arazi" aditzak ZER-NORI-NORK sistema hartzen du. Adibidez:

Ikasleek liburuak irakurri **dituzte**> Irakasleek ikasleei liburuak irakurrarazi **dizkiete**

GEHITU “ARAZI”

- Iñaki etorri da (aita) – Aitak Iñaki etorr**arazi** du
- Nik egia kontatu dut (epailea)
- Soinekoa jantzi zenuen (ama)
- Herrira itzuli gara (euria)
- Zuek gezurra sinetsi zenuten (telebistako berriak)
- Amonak eskularruak egin dizkit (nik eskatu diot)
- Telebistako seriearekin beldurtu nintzen (serieak)
- Biztanleak etxeetan gelditu ziren (gobernuak eskatuta)
- Gauero hortzak garbitzen ditut (dentistak eskatuta)
- Urtebetetze festa presatuko dut (iloba)
- Bizikleta bide bazterrean gelditu genuen (ertzainak)

EMAN ADITZ HAUEN DEFINIZIOAK

Sarrarazi: norbait sartzera behartzea (**hone**lako egiturak erabili zerbait/norbait ... (t(z)era behartu)

- Adierazi:
- Itzalarazi:
- Pentsarazi:
- Erosarazi:
- Biziarazi:
- Kontarazi:
- Jakinarazi:
- Entzunarazi:
- Galarazi:
- Botarazi:

ITZULPENAK EMAN

- El penalti nos ha hecho perder el partido
- Nos hicieron saber lo que les había sucedido
- Los municipales nos han hecho parar las obras
- La tormenta les hizo quedarse en casa
- Mi madre me obliga a comer mucha verdura
- Siempre nos hacen leer libros
- El despertador nos hace levantarnos a las siete de la mañana
- Siempre llegas tarde y nos haces perder el topo
- Los padres nos obligan a ir al colegio
- Me han hecho ponerme en la cola para comprar el pan.

ESALDIAK BERRIDATZI

- Semeari esan diogu berokia jantzi (jantzi + arazi)
- Matematikako irakasleak atazak ebazten irakatsi zigun (ebatzi + arazi)
- Jabeak txakurrari txistu egin dio berarengana hurbiltzeko (hurbildu + arazi)
- Itsaso zakarra zegoenez arrantzaleak portura bueltatu ziren (buelatu + arazi)
- Egoera hori ez zitzaidan gustatu eta haserretu nintzen (haserretu + arazi)
- Gela txukuntzeko esan zigun aitak (txukundu + arazi)
- Egoerari buruz gehiago jakin nuenean, iritziz aldatu nintzen (aldatu + arazi)
- Ez digu entzun nahi izan , baina egia entzutera behartu dugu (entzun + arazi)
- Olatuak zirela eta hondartzatik ateratzeko esan ziguten (atera + arazi)
- Hitz eta pitz ari ziren zineman eta isiltzeko eskatu nien (isildu + arazi)